

# Parisko azken baserriek ez dute hil nahi itota alferrikako hormigoitan



Pello Zubiria Kamino  
@pellozubiria

Paris inguruetan desafio itzela jokatzeko da hilabeteotan. Alde batetik munduko bi enpresa talde indartsuenetakoa 3.100 milioi euroko negozioa errematatu nahian. Bestetik, 26.000 biztanleko Gonesse herria, hiriburuaren azpiegitura eta zerbitzuz dagoeneko gainezka egonik bere azken soro emankorretatik 300 hektarea gal ditzakeena, etxalde, nekazari eta guzti. Notre Dame des Landeseko ZADaren ondoan, apuntatu EuropaCity izena alferrikako proiektu erraldoien artean.



Paris handira hegazkinez hurbiltzen denak Roissy-Charles De Gaulle aireportu erraldoira, leihatilatik ikus ditzake inguruetakoko soro eta baratze zabalak. Hegazkinen pistak batetik –aldameanean dago bigarren aireportu bat, Le Bourget–, trenbide eta autopista sarea bestetik, alimaleko zentro komertzialak alde orotatik... Parisen ateetan 700 hektareatan oraindik garia, koltza, eguzki-lorea edo klase guztietako barazkiak ekoiztea ez ote da miraria?

Sorok ez dute luze iraun behar, hala ere, horietako 300 hektarea lur emankor desjabetu ondoren Euro Disney txiki utzi behar duen EuropaCity mega-parkea eraikitzea lortzen baldin badute 2024rako. Frantziako Estatuan gizarte mugimenduek *Grands Projets Inutiles* izendatu dituztenetan famatuena baldin bada Ar Naoned inguruko Notre Dame des Landesko aireportu proiektua, EuropaCity asmoak ez du meritu gutxiago kategoria berean sartzeko.

Egin kontu. 15 hektareatan parke tematikoa, ur, elur eta abentura parkez osatua. 5 hektareatan zirko egonkorra, ikuskizun sala, erakusketa, zinema zentroa eta kultur espazioa, gazteei zuzendua. 23 hektarea zentro komertzialetrako, bi gehiago jatetxez beteta, beste bi biltzar eta seminariotarako, 10 hektarea parke, 7 gehiagotan hiri baratzeak –benetako ortuak betonez suntsitu ostean–, hotel berrien artean 2.700 gela eskainiko dituzte... Eta zerrenda luzatuz doa 300 hektareak osatu arte.

Inbertsioa ere tamaina berekoa da: 3.100 milioi euro. Horrelako proiektu faraonikoaren antzean, korporazio jigganteak egon behar derrigor. Alde batetik Immochan, zentro komertzialetan txapeldunetako bat den Auchan taldearen higiezin konpainia. Auchan esatea da Mulliez taldea esatea, alegia Jardiland, Decathlon, Simply, Kiabi, Alcampo, Leroy-Merlin, Bricomart, Norauto, Midas, Sabeco... eta askoz gehiagoren jabeak. Frantziako familiarik aberatsetaketakoa osatzen dute Mullieztarrek. EuroCity operazioan sozio daukate Wanda txinatarra, munduko indartsuena erakuntza promozioetan eta zinema aretoetan, 130.000 langile, sustraiak zabalduz kirol, osasun, teknologia eta beste hainbat alorretan.

Nork egin liezaioke aurre –bizirik ateratzeko itzaropenez– horrelako Tartalo pareari? Ez bederen politikari profesionalek. Paris eta inguruetakoko plangintza estrategikoa egitea bere gain daukan Grand Paris Aménagement erakunde publikoa laster konbentzitu zuten proiektuaren onurez, orobat Gonesseko udala.

Zalantzarik baldin bazegoen, 2014an Laurent Fabius (PS) atzerri ministroak deklaratu zuen: “Aurreikusten diren zuzeneko 11.500 enpleguekin, EuropaCity lehen mailako proiektua da. Gure lurraldea egituratuko du eta biziberrituko dio ekonomia”. Eta gobernuak hala erabakita, laster iritsi ziren gehien oniritziak, EuropaCityrekin bat egin zuten Parisko

museo handiek, zein Frantziako motorra den Paris metropolitanoko agintari nagusiek.

Paris metropolitanoaren zati den Val-d’Oise departamenduan dago Gonesse bere 26.000 biztanleekin. 2000. Urtean azaldu zen telebista guztietan, bere lurretan erori baitzen su harturik Concorde hegazkin supersonikoa; gutxiatik ez zen lehertu kaleko etxeen gainean.

## Soroak suntsitu, diru publikoa xahutu

Aspaldi iritsi zen Paris handiaren presioa inguruotara. Bi aireportu handienak, zentro komertzialak, autopistak, klase guztietako azpiegiturak... eten gabeko lurzoru galtzea, 90eko hamarkadan larriagotu zena. Gonesseko Triangelua delakoak osatzen du azken hamarkadetan bizirik iraun duen nekazaritza eremu bakanetakoa. Ez jainkoek egindako mirariz, ordea. EuropaCityk traba egingo dion harri txintzar bakarra aurkitu du luzaz: eskualdeko 15 elkarte osatutako Collectif pour le Triangle de Gonesse (CTG) taldea.

Lekuko militante eta elkarteek urteotako borroketan ezagutu dituzte lurraldearen planifikazioarekin hasten diren dinamika korapilatsuak, ikasi dute legeak eta prozedurek lagatutako zirrikituak baliatzen. Zenbait proiektu handi gelditzea lortu dutelako daude hemen hainbeste hektarea lur 2017an oraindik soro.

EuropaCityri baimenak emateko eztabaida publikoaren epean CTG kolekti-



*Ian Dalipagic eta Jérôme Fourcadek Reporterre atarirako egindako bideoan, Jacques Poix Gonesseko azken laborarietakoak, dagoeneko jatetxe eta zentro komertzialez inguratutako bere ortuan xarbota biltzen merkaturako. Lurrok duela hilabete batzuetatik ez dira bereak, EuropaCity eraikitzeke desjabetu dizkiote. "Hiri baratzea diote? Zirkoa izango da. Barandak egongo dira, zu egongo zara erdian eta jendea begira ea lana nola egiten duzun. Ni laboraria naiz, ez pailazoa!"*

boak, herritarrak mobilizatzear gain, alternatibak ere mahai gainean jarri ditu, Mulliez eta Auchanen proiektu handiarekin erkatzeke moduan, eskualdea biziberritu eta nekazaritza megapoliaren sarean integratzeko lau proposamen planifikazioko profesionalek eta gizarte eragileek eraikiak.

Diru publikoarekin egitear diren iruzurra ere salatzen dute: "EuropaCity diru pribatu hutsez finantzatu behar dutela dioten arren, lurra merke desjabetzeaz gain funtsean diru publikoaren beharra du metro eta autopistak eraikitzeke, interes orokorrari iruzur egiten diote beraz. Eta Auchanek bezala zenbait hautetsik aipatzen dituzten enplegu kopuru horiek gezurtatu egin dituzte ikerketa independente guztiek. Benetan sortuko duten enplegua izango da beste lanpostuak beste nonbait

suntsitzearen truke, hirietan eta dagoeneko bezero faltan dabilzan merkatal guneetan. Horregatik hasi dira entzuten ahots asko salatzen dutenak proiektu kaltegarri hau ekologia, ekonomia eta gizarte arloetan, Frantziak COP21ean hartutako konpromisoak urratzeaz gain".

Eta zer diote baserritarrek? Nonbait gertatu baldin bada Pierre Bitoun soziologoak bere azken liburuaren tituluaren ipini duen nekazarien hilketa *–Le Sacrifice des paysans, une catastrophe sociale et anthropologique*– Paris megapoliaren eskualde zabalean izan da. Hirien presio jasanezina batetik, nekazaritzaren industrializazioa bestetik, laborari bakan batzuk besterik ez dira geratzen orain Gonesseko alorretan.

*Reporterre* webguneak horietako batzuek aurkeztu ditu *Ces ultimes te-*

*rres agricoles qui résistent encore à la bétonisation du «grand Paris»* kronikan. Nekaturik eta etsita daude, batzuek dagoeneko desjabetutako lurretan ari dira ahal duten bitartean, denek sentitu dute hiri erraldoiaren hatzaparra gero eta hurbilago, zepoa zintzurtean gero eta estuago. "Ez dakit zer egin behar den –esan du Jacques Poixek–. Horientzako lurra ez da negozioa baizik".

Abuztuan arnasaldia iritsi zaie: agintarietara dosieraren interes publikoa aztertzeke izendatutako komisarioak EuropaCityren kontrako txostena argitaratu du. Promotoreei ez zaie gustatu, baina fite erantzun dute ez diela axola komisario horren gomendioa, ez delako loteslea, Udalak eta agintarietara daukela erabakitzeke eskumena. Eta politikoei badakigu zer egingo duten. ■



# ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

## 50 urtez elkarrekin